

XXXVII NAFARROAKO KIROL JOKOAK - HERRI KIROLAK 2024

Otsailaren 25ean Nafarroako Herri Kirol Jokoei hasiera emanen zaie Atarrabiako Paz De Ziganda Ikastolan, goizeko 10:30etatik aurrera.

Herri kirol Joko hauek martxoaren 24a arte luzatuko dira, guztira 4 jardunaldi eta Finala jokatuko direlarik.

1. Jardunaldia: Atarrabian, otsailaren 25ean (10:30) Paz De Ziganda Ikastolako frontoian
2. Jardunaldia: Antsoainen, martxoaren 3an (10:30) Kiroldegiko frontoian
3. Jardunaldia: Altsasun, martxoaren 10ean (10:30)
4. Jardunaldia: Elizondon, martxoaren 17an (10:30) Baztan pilotalekuan
5. Jardunaldia (FINALA): Etxarri Aranatzen, martxoaren 24an (11:00) Herriko frontoian

Nafarroako Kirolaren Institutuarekin batera urtero antolatzen diren Herri Kirol Joko hauetan hiru kategorietako neska-mutilek hartzen dute parte: **kimu mailakoak** (11-12 urte), **haur mailakoak** (13-14 urte) eta **kadete mailakoak** (15-16 urte). Taldeak mistoak izan ohi dira.

Haur eta Kadete mailetan bi txapelketa egiten dira: **Sokatira** eta **Proba Konbinatua** (lokotx biltzea, zaku lasterketa, txinga-erute, korrika eta arpana modalitateak biltzen dituena).

Kimu mailakoek berriz, proba konbinatuko txapelketa bakarrik izanen dute (arpana modalitatea ez da sartzen).

Ondorengo Taulan parte hartzaileak azaltzen dira:

Kimuak (2012-2013)	Haurrak (2010-2011)		Kadeteak (2008-2009)	
KONBINATUA	KONBINATUA	SOKATIRA	KONBINATUA	SOKATIRA
Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andra Mari 1	Andraozar	Andraozar
Andra Mari 2	Andra Mari 2	Andra Mari 2		
Andra Mari 3				
Andra Mari 4				
Andra Mari 5				
Antsoain A	Antsoain A	Antsoain A	Antsoain	Antsoain
Antsoain B	Antsoain B	Antsoain B		
	Antsoain C	Antsoain C		
	Antsoain D	Antsoain D		
Arantza	Arantza		Arantza	
Araxes	Araxes		Araxes	Araxes
Basaburua	Basaburua	Basaburua	Basaburua	Basaburua
	Labiaga Ikastola-Bera			
Berriozar 1	Berriozar	Berriozar	Berriozar	Berriozar
Berriozar 2				
Igantzi	Igantzi			
Iñigo Aritza	Iñigo Aritza	Iñigo Aritza		Iñigo Aritza
Joakin Lizarraga A				
Joakin Lizarraga B				
Joakin Lizarraga C				
Paz De Ziganda	PdZ	PdZ	PdZ	PdZ
18	14	10	7	7

KATEGORIA BAKOITZEAN EGIN BEHARREKO PROBAK ETA JOKATZEKO SISTEMA

KIMUAK

PROBA KONBINATUKO LANAK (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx biltzea	1	8 kozkor, metro bateko tartez jarrita
Txingak	1	80 m. 3 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 6 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 metro (bi buelta plazari)

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

HAURRAK

PROBA KONBINATUKO LANA (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Lokotx Biltzea	1	10 kozkor, metro bateko tartez jarrita
Txingak	1	80 m. 5 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 20 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 10 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	160 m. (2 itzuli)
Arpana	2	70 m.ko 2 korte

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

SOKATIRAKO PISUA: 480 kg.

- Multzo bakarra izanen da. Bi jardunaldi eta finala jokatu dira. Finalean 6 taldek hartuko dute parte.
Otsailak 25: Lehen jardunaldiko tiraldien erdiak
Martxoak 3: Lehen jardunaldiko tiraldien beste erdiak
Martxoak 10: Bigarren jardunaldiko tiraldien erdiak
Martxoak 17: Bigarren jardunaldiko tiraldien beste erdiak
Martxoak 24: Finala jardunaldietako 6 talde onenekin.

KADETEAK

PROBA KONBINATUKO LANA (3 txanda):

PROBA	PARTAIDE KOPURUA	EGIN BEHARREKO LANA
Kolotx Biltzea	1	12 kozkor, metro bateko tartez jarrita
Txingak	1	60 m. 10 kg.ko txingekin (2 joan-etorri 15 metrotako zatian)
Zakulariak	3	80 m. 13 kg.ko zakuarekin (bakoitzak buelta bat)
Korrikalaria	1	240 m. (3 itzuli)
Arpana	2	70 zm.ko 3 korte

- Lau jardunaldi eta Finala jokatu dira. Finalean lau taldek hartuko dute parte, 4 jardunaldietako denborak gehituta, denborarik onena duten lau taldeek hain zuzen.

SOKATIRAKO PISUA: 540 kg.

- Multzo bakarra izanen da eta bost jardunaldi jokatu dira liga sistema erabiliz.